

Egun on eta eskerrik asko «Hitzak lege» erakusketara gonbidatzeagatik.

Hirugarren aldiz dagokit erakusketa berezi honi buruz hitz egitea. Orain bi urte Bilbon, orain urtebete Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta gaur Euskal Herriko Unibertsitatean. Hiruetan, bera da hari nagusia: euskaraz idatzita dauden agiri juridiko esanguratsuak, XV. mendeko Bizkaiko Foru Zaharreko aginduetatik gure garaiko legeetaraino.

Hizkuntza bizi baten lekukoa den erakusketa hau medio, hasteko aipamen bat egin nahi dut: atzo hil zen Jose Antonio Ardanza lehendakariarena. Franco ondoren, Arrasateko lehen alkatea. Arrasateko Udaletxean eratu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1979ko apirilaren 22an, 100 urte deseginda egon eta gero. Ardanzari egokitu zitzaion herri-ordezkariz izatea gertaera hartan. Argi zekien haren garrantzia, eta berreskuratu egingo ditut Batzar Nagusietako Agirietan jasota dauden Ardanzaren hitz hauek:

*“Gaur dagigun Batzar hau ez da ezer berririk, lehenagoko Batzarrak berriro sortzea baizik, gure Lege Zaharrak kendu zizkigun 1876garren urteko uztailaren 21eko legean agindu bai, baina emon ez zaigunaren lekukotza gaurkotzea. (...) Batzar hau egiten hasi gaitezen, egitez ohiturara eta ohituratik legera noizbaiten heldu gaitezen; hitz gutxitan esateko, betebetean gure Lege Zaharrera iritxi gaitezen.”*

Ardanza lehendakari zena oroitzuz, erakusketaren hariak zenbait agiri dakartza, eta, besteak beste, nabarmentzekoa iruditzen zaidan bat, euskaraz egiten duen herriaren ikuspegi zabala eta ernea adierazten duena: Giza Eskubideen Adierazpena, Nazio Batuek 1948an onartua, eta handik bi urtera Euzko Gogoan euskaraz argitaratu zutena, Nikolas Ormaetxea, Orixek, euskaratua.

Puntu nagusia, niretzat zera da: erakusketa honek agertzen duenaren azpian, hauspoa ematen, Euskal Herria eta Euskadi eraikitzen duen hizkuntza propioa ditugula, bere jende eta erakundeekin, iraganaren ondarearekin eta



etorkizun-ametsarekin, gure herriari izena eta izana ematen dion euskararekin. Erakusketa honetan ageri zaigu, bai, alderik alde eta mendez mende, euskararen haria, meheagoa edo lodiagoa, baina lotzen gaituen haria, Arabatik Nafarroara eta Lapurditik Bizkaira, Gipuzkoan barna.

Bestetik, garrantzitsua iruditzen zait eta poz ematen dit erakusketa hau Euskal Herriko Unibertsitatean ipintzea. Batetik, jakintzaren gunea da hau, herri honek bere buruari emana, euskal ikasle-jendeak bere heziketa bere herrian burutu ahal dezan, eta are gehiago, euskaraz egin ahal izan ditzan goi ikasketak. Aurrekoak joaten ziren Salamancara edo Parisera, tamalaez hemen unibertsitaterik ez eta. Unibertsitate-ikasketak egin bai, baina erdaraz, ez euskaraz. Euskaraz hemen bakarrik egin daiteke. Nahi irmo eta borrokatua dago herri honek bere unibertsitatea izatearen azpian. Beharrezkoa da nahi izatea, baina boluntarismoa ez da aski: uztarri berean joan behar dute nahiak eta legeak, biek batean herri eskubideei aurrera eragiteko. Eskubide horietako bat euskarari dagokion aukera ematea da: herritar gazteek euskaraz goi ikasketak egin ahal izatea, gero, bizimodua euskaraz ateratzeko.

Eta amaitzeko, hitz bat erakusketa gunee honi buruz. Unibertsitatean gaudenez, erakusketa hau izan dadila gazteentzat unibertsitariak hain beharrezkoa duen jakinmina pizteko akuilu bat, unibertsitateko jakintzak errotzeko lur zatitxo bat eta ikuspegia zabaltzeko talaia bat. Gazteek bila ditzatela euskal erreferenteak, txerta dezatela euskal DNA jakintza orokorretan, ikus dezatela herri honetakoak direla aurrekoek herriari euskaraz eginez eutsi ziotelako. Ikasle gazteek har eta zain dezatela ondare bizi hau, ondorengoei transmititzeko. Mendez mende euskara hitz egin den herri honetan, euskara hitz eta lege izan dadin orain eta gero.

Xabier Ezeizabarrena Saenz

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria

Donostia – EHU, 2024-04-09

